

<p>2021/2022, 2022/2023, 2023/2024 ETA 2024/2025 DENBORALDIETAN DONOSTIAKO KALEETAN "TXURRO POSTUAK" JARRI ETA TXURROAK SALTZEKO BAIMENAK EMATEKO DEIALDIA. OINARRIAK</p>	<p>BASES DE LA CONVOCATORIA DE ADJUDICACIÓN DE AUTORIZACIONES PARA LA VENTA AMBULANTE CON "PUESTOS DE CHURRERÍAS" DURANTE LAS TEMPORADAS 2021/2022, 2022/2023, 2023/2024 Y 2024/2025 EN SAN SEBASTIÁN</p>
<p>1.- XEDEA Deialdi honen xedea da, konpetentziazko konkurrentzian oinarrিতuta, hiriko plaza batzuetan bederatzí txurro postu jartzeko izango diren baldintza administratiboak arautzea.</p> <p>2.- ZENBAT POSTU IZANGO DIREN Gehienez ere bederatzí postu jartzeko baimenak emango dira, bi modalitatetan banatuta:</p> <p>A) Neguko postuak Zortzi postu izango dira, eta baimenaren urteko azaroaren 1etik otsailaren 28ra edo 29ra arte izango dira jarrita (hasierako eguna eta bukaerakoa sartuta). Toki hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> A1 Julio Caro Baroja plaza A2 Easo plaza A3 Katalunia plaza A4 Bartzelona hiribidea (N. Etxaniz) A5 Larratxo plaza (Txirrita) A6 Harria parkea A7 Sagasti Eder plaza A8 Frantzia pasealekua <p>Deialdia egingo den urteari dagokion hasi</p> <p>b) Urte guztiko postua, egunero jarri eta kendu beharrekoa Ekitaldiren bat den egunean (azoka txikia partida, kontzentrazioa,...) jartzekoa. Tokia: B1 Anoeta pasealekua (estadioa)</p> <p>Gune Publikoaren Erabilerako Unitateak libre izango du baimendutako tokiak esleitutako toki publikoetatik hurbil diren beste toki batera aldaraztea, interes publikoa, irisgarritasuna edo behar bezala justifikatutako beste arrazoiren bat dela-eta hala irizten badio, nola baimena eman aurretik hala ondoren, eta unitate horrek hala egiteak ez dio esleipendunari kalte-ordainik izateko eskubiderik emango. Era berean, ez litzateke kalte-ordainik izateko eskubiderik onartuko, osasun edo beste motibo nagusi baten kausaz lizitazio honen helburu den salmenta gauzatzeko debekua ezartzen balitz.</p>	<p>1.- OBJETO La convocatoria, en régimen de concurrencia competitiva, tiene por objeto regular la adjudicación de autorizaciones administrativas para la instalación de nueve puestos de churrerías en la ciudad.</p> <p>2.- PUESTOS A ADJUDICAR El número máximo de autorizaciones que se concederán será de nueve puestos, distribuidos en dos modalidades:</p> <p>a) Puesto de invierno Ocho puestos a disponer del 1 de noviembre al 28 o 29 de febrero de cada año de la autorización (ambas fechas incluidas) en alguna de las siguientes ubicaciones:</p> <ul style="list-style-type: none"> A1 Plaza Julio Caro Baroja A2 Plaza Easo A3 Plaza Cataluña A4 Avenida Barcelona (N. Etxaniz) A5 Plaza Larratxo (Txirrita) A6 Parque Harria A7 Plaza Sagasti Eder A8 Paseo de Francia <p>La fecha de inicio de la ocupación correspondiente al año de la convocatoria se determinará oportunamente.</p> <p>b) Puesto móvil de instalación/retirada diaria para todo el año Un puesto a disponer los días de eventos (partidos, concentraciones, mercadillo...) en: B1 Paseo Anoeta (estadio)</p> <p>La Unidad de Uso del Espacio Público podrá reubicar los espacios autorizados en un entorno cercano a los espacios públicos asignados cuando así lo considere por razón de interés público, accesibilidad u otros debidamente motivados, antes o después de adjudicarse la autorización sin que tal circunstancia imponga reconocimiento de indemnización alguna a favor de la persona adjudicataria. De la misma manera, tampoco cabría reconocimiento de indemnización, si circunstancias sanitarias o de causa mayor imposibilitaran o prohibieran la venta objeto de esta licitación.</p>

3.- INSTALAZIOEN EZAUGARRIAK

Instalazioek ezin izango dute 6 x 4 m baino toki handiagorik hartu kalean.

Era berean, txurroak frijitzeak eragindako usaina kanpora ez zabaltzeko izan behar diren elementu guztiak izan behar dituzte postuek (keak ateratzeko kanpaiak, iragazkiak, ozono-desodorizatzaileak eta abar), kalean dabilen jendeari eta txurro postua jarrita den tokiaren inguruko bizilagunei endredorik ez sortzeko.

Orobat, halako ezaugarri estetiko batzuk ere izan behar dituzte instalazioek, itxura txarrik ez emateko diren lekuan, eta, hala, ahal dela ez dute barraketako txurro postu itxurarik izan behar. Egiturak, ahal dela, zuriak izan behar dira, eta ondo kasu eginda eduki behar dira esleipena den denboraldi osoan. Esleipendunaren kontura izango dira mantentze-lanek dakartzaten gastuak.

Ez dago instalazioak lurzoruari edo hiri-altzariei ainguratzerik, eta ingurunera egokitu behar dira, haren apaindura publikoaren irizpideak aintzakotzat hartuta. Haien zerbitzuaren erabiltzaileek sor ditzaketen hondakinak biltzeko behar adina paperontzi ere izan behar dituzte inguruan, eta esleipendunek izango dute txurro postuaren 10 metroko bueltan den inguru guztia garbi eta txukun izateko erantzukizuna ere.

4.- PRESTAZIOAREN BALDINTZAK

Asteko egun guztietan egin daiteke kaleko salmenta hau; baimendutako aldian, betiere, eta 8:00etatik 22:00etara lanegunetan eta igandeetan eta 23:00ak arte ostiraletan, larunbatetan eta jai bezperetan.

Neguko txurro postuek txurroak, kruxpetak, gofreak, patata frijituak eta haien kideko produktuak saldu ahal izango dituzte, eta baita ura ere. Urteko baimena duenak alkoholik gabeko edariak ere saldu ahal izango ditu.

5.- POSTUAK ESLEITZEKO PROZEDURA

Lehiaketa izango da postuak jartzeko baimenak esleitzeko prozedura. Eskaintza ekonomikorik onena aurkeztu duen

3.- CARACTERÍSTICAS DE INSTALACIONES

Las instalaciones no podrán suponer una ocupación de vía pública superior a 6 x 4 m.

Los puestos deberán contar con los elementos necesarios (campanas de extracción de humos, filtros, desodorizadores de ozono u otros) para evitar que el olor procedente de la fritura de los churros invada el exterior, molestando a viandantes y vecindad de la zona en la que se instale la churrería.

Las instalaciones deberán reunir características estéticas que no supongan un impacto negativo en el entorno en el que se ubiquen, evitándose, en lo posible, el aspecto de instalación de churrería de feria. Las estructuras tendrán las paredes preferiblemente blancas y deberán mantenerse en perfecto estado de conservación general, durante toda la temporada para la que se concede la adjudicación, siendo por cuenta de las adjudicatarias los gastos derivados del mantenimiento.

Las instalaciones no podrán anclarse al suelo ni a ningún tipo de mobiliario urbano, debiendo acomodarse al entorno, de acuerdo con el criterio de ornato público del mismo. Deberán disponer de papeleras suficientes para el depósito de los desperdicios que los usuarios de su servicio pudieran producir, siendo responsables del mantenimiento en perfecto estado de limpieza de la zona circundante a la churrería en un tramo de 10 mts.

4.- CONDICIONES DE LA PRESTACIÓN

La venta puede tener lugar todos los días de la semana del período autorizado, en horario de 8:00 a 22:00 (los días laborables y domingos) y hasta las 23:00 los viernes, sábados y vísperas de fiesta.

Las churrerías de los puestos de invierno podrán vender churros, buñuelos, gofres, patatas fritas y productos relacionados, así como agua. La de autorización anual podrá vender, además, bebidas no alcohólicas.

5.- PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN

El procedimiento de concesión de autorizaciones será el concurso. Los puestos se adjudicarán a favor del oferente que

eskaintzaileari esleituko zaizkio postuak, baldin eta hark aurkeztutako instalazioa egokitzat jotzen bada.

6.- LEHIAKETAKO PREZIO GUTXIENEOA

2021eko ordenantza fiskalek (toki publikoa kioskoak jarri eta txurroak, krispetak, izozkiak eta gainerakoak salduz aprobetxatzeari buruzkoek) prezio hauek jartzen dituzte m² edo frakzio eta hileko, kale-kategoria bakoitzerako:

hubiese presentado la mejor oferta económica siempre que la instalación presentada sea declarada adecuada.

6.- TIPO MÍNIMO DE LICITACIÓN

Las ordenanzas fiscales del presente año 2021 (aprovechamiento por venta de churros, palomitas, helados y demás con kiosko) establece los siguientes importes por m² o fracción y mes para cada categoría de calle:

2. kat./ cat 2	3. kat./ cat 3	4. kat./ cat 4	5. kat./ cat 5
24,77 €	19,21 €	12,00 €	11,94 €

Tasa horiek aplikatzeko arauak jartzen dute aprobetxamenduetan, oro har, azaleraren kalkulua elementuak berak okupatutako azalera gehi haren eragin eremuaren azalera oinarri hartuta egingo dela, eta eragin eremua elementuaren aurrealdeak duen luzera bider metro bat izango dela.

Horrenbestez, lehiaketako prezio gutxienekoa 2021eko ordenantza fiskaletan jarritako prezioak aplikatuz ateratako emaitza izango da. Anoetan izango den jarri eta kentzeko moduko posturako, berriz, lizitazioaren gutxieneko tasa laurden bat txikiagoa izango da.

6 x 4 m-ko txurro postuak, adibidez, metro hauek hartuko lituzke: (6 x 4) + 6 (eragin eremua) = 30 m² eta honako gutxieneko prezioa lukete

- 2. kat. Kalea: 1.043,10 €/hilean (30x34,77)
- 3. kat. Kalea: 576,30 €/hilean (30x19,21)
- 4. kat. Kalea: 360,00 €/hilean (30x12,00)
- 5. kat. Kalea: 358,20 €/hilean (30x11,94)

Postuak jartzeko proposatutako tokietako kaleen kategoriak:

- A1 Julio Caro Baroja plaza 3. kat.
- A2 Easo plaza 2. kat.
- A3 Katalunia plaza 3. kat.
- A4 Bartzelona hiribidea 4. kat.
- A5 Larratxo plaza (Txirrita) 5. kat.
- A6 Harria parkea 5. kat.
- A7 Sagasti Eder plaza 3. kat.
- A8 Frantzia pasealekua 3. kat.
- B1 Anoeta pasealekua 3. kat.

7.- DEIALDIA ETA ESKABIDEAK AURKEZTEA.

Interesdunek Administrazio Publikoen

Las normas de aplicación de las citadas tasas establecen que en los aprovechamientos, por regla general, el cálculo de la superficie se efectuará en base a la superficie ocupada por el propio elemento más la superficie de su área de influencia, siendo esta la longitud de frente del elemento por un metro.

En base a ello, el tipo mínimo de licitación será el resultado de la aplicación de los precios recogidos en las ordenanzas fiscales en vigor para el año 2021. Para el puesto no permanente de Anoeta el tipo mínimo de licitación será una cuarta parte menor.

A modo de ejemplo, para una churrería de 6x4 mts (metros de ocupación: 6x4 + 6 área de influencia = 30 m²) estos serían los precios mínimos

- C/cat 2: 1.043,10 €/mes (30x34,77)
- C/cat 3: 576,30 €/mes (30x19,21)
- C/cat 4: 360,00 €/mes (30x12,00)
- C/cat 5: 358,20 €/mes (30x11,94)

Las categorías de calle de las ubicaciones propuestas son las siguientes:

- A1 Plaza Julio Caro Baroja cat 3
- A2 Plaza Easo cat 2
- A3 Plaza Cataluña cat 3
- A4 Avenida Barcelona cat 4
- A5 Plaza Larratxo cat 5
- A6 Parque Harria cat 5
- A7 Plaza Sagasti Eder cat 3
- A8 Paseo Francia cat 3
- B1 Paseo Anoeta cat 3

7.- CONVOCATORIA Y PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES.

Las personas interesadas presentarán sus

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean jarritako edozein bide erabiliz aurkeztu ditzakete eskabideak, deialdi honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 30 egun joan baino lehen, betiere.

Epe horretan izango da informazioa eskatzeko modua ere, Gune Publikoaren Unitatean (Urdaneta kalea 13, 2.a), 943483404 telefonoan edo udalaren webgunean.

Era berean, lehiaketa honen gainean argitaratuko diren egintzak iragarki eta ediktu ohol digitalen bidez egingo dira, www.donostia.eus orrialdean.

Pertsona fisiko edo juridiko batek berak proposatzen diren leku bat edo gehiago hartzeko eskaintzak egin ditzake. Lizitzaile bakoitzak egokitzat jotzen dituen kokapenak aukeratu ahal izango ditu, eta postu bat baino gehiago hartu ahal izango du, betiere kokapen bakoitzean jardungo duenaren identifikazio pertsonalerako jarritako baldintzak betetzen baditu.

Lizitzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte beren proposamenak egiteko:

◆ Erantzukizunpeko adierazpenaren inprimakia (I. eranskina) behar bezala beteta, bertan eskatzailearen datuak jasotzen dituena eta salmenta ibiltarian jarduteko betebeharrak betetzen dituztela adierazten duena.

◆ Eskaintza inprimakia (II. eranskina) behar bezala beteta (inprimaki bat txurreria edo egitura bakoitzeko) eskuratu nahi diren kokapen bakoitzerako egiten den proposamen ekonomikoa eta txurreriarren beraren ezaugarri teknikoak jasoko dituena. Eskaintza ekonomikoa ez dauka hirugarren klausulan adierazitako lizitazio prezioa baino txikiagoa izaterik, eta m²-ko eta hileko hainbesteko bat jarrita aurkeztu behar da.

Postua osatuko duen egituraren ezaugarriak ere deskribatu eta zehaztu egin behar dira (atoia edo in situ muntatutako egitura den, zer neurri eta pisu duen...), bai eta, hala badagokio, hura oinezkoentzako gunera sartzeko erabili behar den ibilgailuen ezaugarriak ere. Eranskinarekin batera,

solicitudes por los medios establecidos en la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en el plazo de 30 días a contar desde el día siguiente al de la publicación del anuncio de la presente convocatoria en el BOG.

Durante este plazo se podrá solicitar información en la Unidad de Espacio Público, C/Urdaneta n.º 13 - 2º, en el teléfono 943483404, o a través de la web municipal.

Asimismo los actos objeto de publicación de este concurso se realizarán a través del tablón de anuncios y edictos digital, en la página www.donostia.eus.

La misma persona (física o jurídica) podrá presentar proposiciones para participar en la adjudicación de más de una de las ubicaciones que se plantean. Cada persona licitadora podrá optar a las ubicaciones que estime conveniente y podrá ser adjudicataria de más de un puesto siempre que cumpla en todas ellas los requisitos establecidos de identificación personal de quien vaya a desarrollar la actividad en cada una de las ubicaciones.

Las licitadoras deberán realizar sus proposiciones mediante la presentación de los siguientes documentos:

◆ El impreso de declaración responsable (anexo I) debidamente cumplimentado, donde consignarán los datos del solicitante y declararán cumplir las condiciones para ejercer la venta ambulante.

◆ Un impreso de oferta (anexo II) debidamente cumplimentado (uno por cada instalación o churrería que se oferte), donde se reflejará la propuesta económica que se haga para cada una de las distintas ubicaciones a las que se opte y las características técnicas del elemento o churrería a instalar. La oferta económica no podrá ser inferior al tipo de licitación señalada en la cláusula tercera: se presentará oferta por m² y mes.

Se deberán describir y detallar las características de la estructura que conformará el puesto (condición de remolque o estructura montada in situ, medidas, peso...) así como, en su caso, las de los vehículos cuyo acceso a zona peatonal es necesario

argazki eta infografia batzuk ere sartu behar dira, bide publikoan jarri behar den egiturarenak, eta baita atoiaren eta atoa lotuta eraman behar duen ibilgailuaren fitxa teknikoak ere.

8.- ESLEIPEN PROZEDURA

1) Udalak, lehenik eta behin, aurkeztutako instalazio bakoitza egokia ala desegokia den begiratuko du.

Berrikuspen horretan instalazioren bat desegokitzat jotzen bada, 5 egun balioduneko epea emango zaio pertsona edo erakunde eskatzaileari dagokion zuzenketa egin dezan. Zuzendu ezin diren akatsak ikusten badira, baztertu egingo da, automatiko, aurkeztutako proposamen hura.

2) Beste 20 egun balioduneko epean postu bakoitzaren behin-behineko esleipena egingo da, eskaintza ekonomikorik onena aurkeztu duen eskatzailearen alde, betiere egokitzat jo izana baldin balitz.

Alde ekonomiko handieneko bi eskaintza berdin edo gehiago agertuko balira, haien arteko zozketa bidez emango litzateke behin-behineko esleipena, salbu eta haietakoren batek lehentasuna badu Udalaren Gizarte Zerbitzuen txostenak bermatutako egoera sozial bereziaren arabera.

Behin-behineko esleipena argitaratzearekin batera, 5 egun baliodunen epea zabalduko da erreklamazioetarako.

3) behin epe hori agortuta, behin betiko zerrenda argitaratuko ea eta 7 egun balioduneko epean dokumentazio hau aurkezteko aginduko zaie behin-behineko esleipendun guztiei:

- Argindarra hartzeko kontratuaren egiaztagiria (aldi baterako instalazio elektrikoaren buletinaren ziurtagiria).
- Instalazioaren egiaztapenaren eta probaren urteko ziurtagiria (indarrean izan behar du).
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria
- EJZn alta emanda egotearen ziurtagiria
- Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Autonomoen kotizazioa ordaintzearen

para su traslado. El impreso deberá ir acompañado de fotografías o infografías de la estructura para la que se solicita permiso de ubicación en la vía pública así como fichas técnicas tanto del remolque como del vehículo que lo arrastra.

8.- PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN

1) El Ayuntamiento revisará, en primera instancia, la condición de adecuada o inadecuada de cada una de las instalaciones.

Si en dicha revisión alguna instalación es declarada inadecuada, se otorgará a la persona o entidad solicitante un plazo de 5 días hábiles para la subsanación correspondiente. Si se observasen errores no subsanables, se procederá a la exclusión automática de la propuesta presentada.

2) Dentro del plazo de 20 días hábiles se realizará la adjudicación provisional de cada ubicación a favor del oferente que hubiese presentado la mejor oferta económica y hubiera sido considerado adecuada.

Si aparecieran dos o más ofertas iguales que representasen la máxima ventaja económica, se otorgaría la adjudicación provisional mediante sorteo entre ellas, salvo que alguna de ellas tenga prioridad en base a situación social especial avalada por informe de los Servicios Sociales del Ayuntamiento.

Con la publicación de la adjudicación provisional se abrirá un plazo de 5 días hábiles para posibles reclamaciones

3) Agotado dicho plazo se publicará la relación definitiva y se conminará a todos los adjudicatarios provisionales a presentar, en el plazo de 7 días hábiles, la siguiente documentación:

- Justificante de contrato de suministro eléctrico (certificado de boletín de instalación eléctrica temporal)
- Certificado anual vigente de verificación y prueba de la instalación.
- Certificado de estar al corriente de las obligaciones de la Seguridad Social
- Certificado de estar de alta en IAE
- Certificado de hacienda de estar al corriente en el cumplimiento de obligaciones fiscales
- Certificado de abono de la cotización de autónomos

ziurtagiria.

- Lan egingo duten pertsonen datuak.
- salmentan jardungo dutenen Elikagaiak maneiatzeko txartela.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren ziurtagiria, jarduera ekonomikoaren arriskuak gutxienez 150.000 €-tan estaltzen dituen..

Pertsona juridikoa izanez gero, eraketa-
eskrituren kopiak, eskatzailearen ordezkari-
ahalordeak eta bazkideen erregistroa aurkeztu
beharko dira. Era berean baimen hori erabiliko
duen pertsonaren, enplegatuaren edo
bazkidearen erreferentzia, hala badagokio.

Puntu honetan jarritakoa betetzen ez bada,
galdu egingo da esleipena, bigarren postuan
geratutakoak hartuko du haren lekua eta
horrela jardungo da hurrenez hurren.
Lizitatzailerik geratzen ez bada, postua hutsik
gera daiteke.

4) Dokumentu horiek denak jasotakoan,
postua jartzeko baimena emango du Udalak,
eta salmenta-postua jartzeko moduan izango
da esleipenduna, dagokion tokian eta epeetan.

9.- ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1) Baimendutako pertsonaren eskubideak
izango dira: aplikatzekoak diren legezko eta
arazko xedapenetan jarritakoak, Gune
Publikoaren Erabilerari buruz indarrean den
Udal Ordenantzan izaera horrekin jasotakoak
eta oinarri hauetan jarritako baldintzak.

2) Baimendunaren betebeharrak izango dira,
lehen esandako ordenantza horretan
aurreikusitakoez gain, beste hauek ere:

a) Erantzukizunpeko adierazpenean eskatu
eta agindutako baimen eta/edo lizentzia
ofizialak eskuratzea eta haiek eskatzen dutena
betetzea baimena indarrean den bitarte
guztian. Erantzukizunpeko adierazpenean
adierazitako dokumentazioak merkatoriaren
esku izan behar du, eta erakutsi egin behar
ditu eskatzen diotenean.

b) Esleitutako tokia bakarrik okupatzea, ez
aldatzea tokiz eta ezta izendatutako tokia
baino handiagoa hartzea ere.

c) Jarduteko baimena duten pertsonak bestek
ez jardutea. Langile batzuk kontratatzen
baditu, esleipendunaren kontura izango da;
eta, betiere, lan, berdintasun, gizarte-
segurantzza eta lan-arriskuen prebentzio aldetik
indarrean diren araudiek agindutakoa bete

➤ Datos de la persona que atenderá el
puesto

➤ Carnet de manipulador de alimentos
correspondiente

➤ Certificación de Seguro de Responsabilidad
Civil que cubra los riesgos de la actividad
económica por un importe mínimo de 150.000
€.

En caso de personas jurídicas, se adjuntarán
fotocopias de las escrituras de constitución,
poderes de representación del solicitante y
registro de socios. Asimismo, se indicará la
referencia de la persona, empleado o socio
que hará uso de la citada autorización, en su
caso.

No presentar dicha documentación supondrá
la pérdida de la adjudicación, siendo sustituido
por el que hubiese quedado en segundo lugar
y así sucesivamente, pudiendo quedar
vacante la ubicación si no hubiera más
licitadoras.

4) Con la documentación recibida, se emitirán
las autorizaciones pertinentes y las
adjudicatarias podrán proceder a la instalación
de los puestos de venta.

9.- DERECHOS Y OBLIGACIONES

1) Serán derechos de la persona autorizada
los establecidos en las disposiciones legales y
reglamentarias que resulten de aplicación y los
recogidos con tal carácter en la Ordenanza de
Uso de Espacio Público en vigor, además de
las condiciones establecidas en estas Bases.

2) Serán obligaciones del autorizado, además
de los que estando previstos en la citada
ordenanza sean de aplicación:

a) Obtener los permisos y/o autorizaciones
oficiales exigidas y prometidas en la
declaración responsable y mantener su
cumplimiento durante el plazo de vigencia de
la autorización. La documentación señalada
en la declaración responsable deberá estar en
posesión de la persona comerciante y ser
presentada cuando le sea requerida.

b) Ocupar exclusivamente el espacio
asignado, sin poder variar el mismo ni
sobredimensionarlo.

c) Desarrollar la actividad, en todo caso, por
las personas autorizadas para ello. Si
contratara personal, será por su cuenta y
estará obligado a cumplir las normativas
vigentes en materia laboral, de igualdad,
seguridad social y prevención de riesgos

beharko du.

d) Baimena iraungitakoan, edozein arrazoi dela ere iraungitzeko, berehala kentzea instalazioa kaletik. Hala egin ezean, udal-bitartekoek kenduko dute hura eta esleipendunari erantsiko zaio haren kostua, betebeharrak ez betetzeak ekar daitezkeen erantzukizunak edo zehapenak eskatzea edo jartzea gorabehera.

e) Jardueraren eta hartarako behar diren instalazio eta horniduren (argia, ura, etab.) ondorioz izaten diren gastu guztiak bere gain hartzea.

f) Baimenean adierazitakoa beste jarduerarik ez egitea postuan, eta ez edukitzea hura baimendutako jarduerarik gabe 15 egun baino gehiago.

g) Bide publikoan garatu beharreko jarduerarekin zerikusia duten idazki, iragarki, ohar, kartel eta gainerako guztiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz azaltzea, euskarari lehentasuna emanaz. Salmenta-postuan jendeari kasu egiteko diren langileek ulermen aldetik zerbitzuari behar bezala erantzuteko izan beharreko gutxieneko ezagutza batzuk izatea.

H) Jendearentzako salmenta-prezioak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz ikusteko moduan jartzea, eta erreklamazio-orriak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz edukitzea, eskatzen duten bezeroen eskura.

i) Zoladurari edo, oro har, jabari publikoko ondasunei eragindako kalteen erantzule izatea, eta hirugarrenekiko erantzukizun zibilarena ere.

k) Baimenak irauten duen bitartean, eguneratuta eta indarrean izatea baimena eman aurretik eskatutako dokumentu guztiak (urteko egiaztapen-ziurtagiria, aseguruak ...).

l) Eskaintzaren arabera jarritako zenbatekoak ordaintzea urtero-urtero.

m) Bezeroei faktura sinplifikatu bat ematea, salerosketa egiaztatzeko.

n) Alergiak edo intolerantziak eragiten dituzten osagaiak edo substantziak dauden adieraztea postuan dagoen kartel batean.

10.- LANGILEAK. BETEKIZUNAK

Ematen diren baimenak pertsonalak eta besterenezinak izango dira, eta Udalak bakarrik du, jarritako norgehiagoka prozedura eta diren itxaron zerrendak errespetatuz, haiek eskuz aldatzeko modua.

laborares.

d) Retirar la instalación de la vía pública una vez extinguida la autorización por cualquier causa. En caso contrario, la retirada se realizará por medios municipales por cuenta del causante de la actuación (el costo le será repercutido), con independencia de las responsabilidades o sanciones que, en su caso, pudieran derivarse del incumplimiento.

e) Asumir a su cuenta todos los gastos derivados del ejercicio de la actividad, así como las instalaciones y los contratos de suministro necesarios para ello (luz, agua, etc.)

f) No realizar en el puesto actividad distinta de la señalada en la autorización, ni mantener el puesto sin la actividad autorizada por un periodo superior a 15 días.

g) Exponer todos los escritos, anuncios, avisos, carteles, etc. relacionados con la actividad a desarrollar en la vía pública en euskera o en euskera y castellano, dando prioridad el euskera. El personal que atiende el puesto de venta deberá tener los conocimientos mínimos, a nivel de comprensión, para atender debidamente el servicio.

h) Exponer de forma visible los precios de venta al público en euskera o en euskera y castellano y tener a disposición de los clientes que lo soliciten Hojas de Reclamaciones también en euskera o en euskera y castellano.

i) Responder de los daños que pudieran inferir a bienes de dominio público en general, así como de la responsabilidad civil respecto a terceros.

k) Tener actualizados y vigentes durante el período de autorización todos los documentos (certificación anual de verificación, seguro...) requeridos a inicio de la autorización.

l) Abonar cada año las cuantías establecidas según oferta.

m) Entregar a los clientes una factura simplificada como justificante de la compra realizada.

n) Reflejar en un cartel situado en el puesto de la presencia de ingredientes o sustancias que causan alergias o intolerancias.

10.- PERSONAL. REQUISITOS

Las autorizaciones que se concedan serán personales e intransferibles, pudiendo ser transmisibles únicamente por el Ayuntamiento, respetando el procedimiento de concurrencia competitiva establecido y las listas de espera resultantes.

Pertsona hauek bakarrik izan daitezke postuetan jendeari kasu egiten:

- Pertsona fisikoei esleitutakoetan: titularra, ezkontidea edo dagokion erregistroan inskribatutako izatezko bikotekidea, haien seme-alabak eta enplegatuak, Gizarte Segurantzaren alta emanda.

- Pertsona juridikoei esleitutakoetan: bazkideak eta enplegatuak, Gizarte Segurantzaren alta emanda.

Titular bakoitzak bere laguntzailea izendatu behar du lehen esandako pertsona horien artean, eta Udalari dokumentu bidez egiaztatu behar dio hartarako eskatutako baldintzak betetzen dituela hark (zer familia, sozietate edo lan harreman duten, besteak beste).

11.- POSTU HUTSAK BETETZEA

Aipatutako hautaketa prozeduraren arabera esleipena egin eta, baldintza guztiak bete arren, posturik lortu ez duen eskatzaileak geratzen bada, itxaron-zerrendan sartuko da, postu hutsik geratuz gero hura betetzeko.

Hala, posturen bat hutsik geratzen denean, hura hartzeko proposamena egingo zaio itxaron zerrenda horretan aurrena dagoenari, eta hark onartu egin duela adierazi beharko du. Hala egin ezean, galdu egingo du postua hartzeko eskubidea.

Baimen berriaren indarraldia postu hartan baja eman zuenak zeukan hura berbera izango da.

12.- POSTUA LEKUZ ALDATZEA ESKATZEKO PROZEDURA

Neguko postua jartzeko baimenaren titularrek libre izango dute hutsik geratutako beste toki batera aldatzeko eskatzea, baldin eta postu hura hartzeko eskaintza egin bazuten lehiaketa egin zenean.

Hirigintza aldetik aldaketaren bat egin eta txurro postua jartzeko moduko beste tokiren bat aterako balitz, baimendutako guztiei emango litzateke haren berri, eta eskatzeko moduan libre den tokien zerrendan sartuko litzateke toki hura ere.

Los puestos deberán ser atendidos por alguna de las personas que se señalan a continuación:

- En los adjudicados a personas físicas: su titular, cónyuge o pareja de hecho inscrita en el correspondiente registro, hijos y empleados de aquellos, dados de alta en la Seguridad Social.

- En los adjudicados a personas jurídicas: los socios y empleados dados de alta en la Seguridad Social.

Cada titular deberá nombrar a la persona colaboradora entre las anteriormente señaladas, acreditando documentalmente al Ayuntamiento que cumple los requisitos exigidos, entre ellos la relación familiar, societaria o laboral que les une.

11.- COBERTURA DE VACANTES

Si una vez realizada la adjudicación, conforme al procedimiento selectivo señalado, quedasen solicitantes que cumpliendo todos los requisitos no hayan obtenido un puesto, quedarán inscritos en una lista de espera a los efectos de cobertura de vacantes.

Una vez surgida una vacante la propuesta de adjudicación de la misma será notificada a la persona interesada, siguiendo el orden de la citada lista de espera, quien deberá manifestar su aceptación entendiéndose decaído su derecho en caso contrario.

La fecha de finalización del plazo de vigencia de la nueva autorización será la misma que tenía la que causó baja en el puesto.

12.- PROCEDIMIENTO PARA SOLICITAR CAMBIO DE UBICACIÓN DE PUESTO

Los titulares de una autorización para un puesto de invierno podrán solicitar cambiar a una ubicación libre siempre que hubiera licitado a dicho puesto.

Caso de que tras alguna modificación urbanística se generara algún nuevo espacio susceptible de ser ocupado por una churrería, se dará cuenta de ello a todas las autorizadas, pasando dicha ubicación al listado de ubicaciones libres solicitables.

Denboraldi bakoitzean postu aldaketa bakar bat onartuko da. Postu hori lehen zen kaleak ez duen beste kategoria bateko kale batera aldatuz gero, eta, beraz, tasa ere doitu beharra badago, denboraldiaren amaieran doitu da.

13.- BAIMENEN IRAUPENA

Aplikatzekoak diren lege eta erregelamendu xedapenetan ezarritako arrazoiengatik ez ezik, kontratu-arrazoi hauengatik ere iraungi ahal izango da baimena, dagozkion zehapen-xedapenak aplikatzeari uko egin gabe horregatik. Kontratua iraungitzeko arrazoiak:

- a) Titularrak uko egitea, idatziz hala adierazita.
- b) Laugarren klausulan jarritako indarraldia igarotzea.
- c) Lizitazioa egitekoan esleipendunak argazkiz-eta adierazi zuen salmenta-instalazioa ez beste bat jartzea edo baimendutako tokian ez beste batean jartzea hura.
- d) Baimenean zehaztutako egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta 10 egun baino lehen ez jartzea postua bere tokian.
- e) Hamabost egunean jarduerarik gabe edukitzea salmenta postua, hala edukitzeko behar adinako arrazoirik izan gabe.
- f) Baimendu gabeko produktuak saltzeko erabiltzea postua.
- g) Indarrean diren xedapenetan ezarritako betebeharrak behin eta berriz ez betetzea, bereziki Gune Publikoaren Ordenantzan jarritakoak eta oinarri hauetako xedapenak.

Deialdi honetan araututako baimenen iraupena lau urte izango da.

Esleipen prozedura amaitu eta hurrengo bi urteetan ez da beste eskabiderik egiterik izango. Epe hori amaitutakoan, postuak esleitzeko beste prozedura baterako deia egingo da.

14.- ZAINZA, IKUSKARITZA ETA KAUTELAZKO NEURRIAK

Udal agintariak, dituzten zaintza eta kontrol eginkizunak bete eta bermatu egingo dute behar bezala betetzen direla oinarri hauetako xedapenak, ordenantzetan ezarritakoak eta egin behar den jarduerari nahiz saldu behar diren produktuei aplikatu behar zaizkien gainerako lege-araudiak.

Se admitirá únicamente un cambio de puesto en cada temporada. Si tal cambio supone, por la diferente categoría de la calle en que se ubique el nuevo puesto, un ajuste de la tasa, esta se realizará a fin de temporada.

13.- DURACIÓN DE LAS AUTORIZACIONES

Además de por las causas establecidas en las disposiciones legales y reglamentarias que resulten de aplicación, la autorización se extingue por las causas contractuales siguientes, sin perjuicio de la aplicación de las disposiciones sancionadoras correspondientes.

- a) Renuncia del titular, manifestada por escrito.
- b) Transcurso del plazo de vigencia establecido en la cláusula cuarta.
- c) La instalación de un elemento diferente al señalado por el adjudicatario en el momento de la licitación mediante la aportación de fotografías, o en lugar diferente al autorizado.
- d) No ubicar el puesto de venta en el plazo de 10 días naturales desde el día siguiente a lo determinado en la autorización correspondiente.
- e) La falta de actividad del puesto para la venta autorizada durante quince días, sin causa justificada.
- f) La utilización del puesto para la venta de productos no autorizados.
- g) Incumplimiento reiterado de las obligaciones establecidas en las disposiciones vigentes, en particular en la Ordenanza del Espacio Público, así como las determinaciones en las Bases.

La duración de las autorizaciones reguladas en esta convocatoria será de cuatro años.

No se admitirán nuevas solicitudes durante los dos años siguientes a la finalización del procedimiento de adjudicación. Al término de dicho plazo se convocará un nuevo procedimiento de adjudicación de puestos.

14.- VIGILANCIA, INSPECCIÓN Y MEDIDAS CAUTELARES

Las Autoridades municipales, en ejercicio de sus funciones de vigilancia y control, garantizarán el debido cumplimiento de las disposiciones de las presentes bases, y de las establecidas en las Ordenanzas y demás normativa legal que resulte de aplicación a la actividad y a los productos objeto de venta.

Hala, Udaltzaingoak, Udalaren esku-hartzea noraino ailegatzen den jakinarazi, nahitaez izan behar den udal baimenak babesten ez dituen jarduerak eta okupazioak berehala etenarazi eta erabilera horiek ekar ditzaketen zehapen-ondorioez ohartaraziko du, eta baita horren guztiaren akta egin ere. Akta hori, dagokion txostenaren bidez osatzeko bidea ere izango da.

Horri berehala kasu egin ez edo baimendu gabeko erabilerak behin eta berriz egiten dituztela ikusten bada, jaso egingo da horren berri, arau-hauslearen erantzukizuna modulatzeko hartara. Ikuskapen-aktetan eta txostenetan jasotako salaketek froga-balio osoa izango dute horrela egiaztatutako egitate objektiboei dagokienez.

Zehaztutako erabilera horiek egiten ari diren pertsonak Udaltzaingoaren aurrean identifikatzeko betebeharra dute, bai eta haiei beren ikuskapen-lan zehatzean laguntzeko betebeharra ere. Ikuskatze horrek, erabileraren izaerarekin eta espazio publikoan duen eraginarekin bat etorri beharko du.

Agintaritzaren agenteek erabilera berezi edo pribatibo hauek saihesteko hartu behar diren neurriak hartuko dituzte: baimenik ez duten erabilerak, baimena izan arren baimenaren baldintzak argi eta garbi urratzen dituztenak edota erabilera horiei uzteko edo arautzeko aginduagatik hala egiten ez dutenak.

Kasu horietan, instalazioen edo salgaien kautelazko esku-hartzea xedatuko da, bai eta Ordenantzak dakartzan arauak hausteak egitekoan erabilitako tresna eta lanabesena eta arau-haustea eginda lortutako emaitzarena ere; eta segituan ekingo zaio dagokion zehapen prozedura egiteari.

15.- ZUZENBIDE OSAGARRIA

Oinarri hauetan xedatu ez den orori dagokionez, gai honetan aplikatzekoa den indarreko araudian eta, bereziki, Donostiako jabari eta erabilera publikoko okupazioak arautzen dituen Ordenantzan xedatutakoari jarraituko zaio, eta zinegotzi ordezkariari dagokio oinarri hauek eta aipatutako araudiak eskatzen duten interpretazioa egitea.

La Guardia Municipal informará del alcance de la intervención municipal, requerirá el inmediato cese de las actividades y ocupaciones no amparadas en la preceptiva autorización municipal, y advertirá de las consecuencias sancionadoras que pueden deparar tales utilizaciones, extendiendo acta de todo ello, que podrá ser completada mediante el correspondiente informe.

En caso de no ser atendido de forma inmediata u observarse reiteración en las utilizaciones no autorizadas, se hará constar tal circunstancia en orden a modular la responsabilidad del infractor. Las correspondientes denuncias, contenidas en las actas de inspección e informes, tendrán pleno valor probatorio respecto de los hechos objetivos así constatados.

Las personas que se encuentren realizando las concretas utilizaciones tienen la obligación de identificarse ante la Policía Local, así como el deber de colaborar con su concreta labor inspectora, que se ajustará en todo caso a la naturaleza de la utilización y a su afección al espacio público.

Los Agentes de la Autoridad, adoptarán las medidas pertinentes en orden a evitar las utilizaciones especiales o privativas que carezcan de autorización o, aún teniéndola, se desarrollen con palmaria y evidente conculcación de las condiciones de autorización, y, habiéndose requerido su cese o regularización con anterioridad, no lo hayan cumplido.

En estos casos se dispondrá la intervención cautelar de las instalaciones o mercancías, de los útiles e instrumentos empleados en la comisión de las infracciones a la Ordenanza, así como del resultado obtenido en la comisión de la infracción, procediéndose con urgencia a la incoación del correspondiente procedimiento sancionador.

15.- DERECHO SUPLETORIO

En lo no dispuesto en las presentes bases se estará a lo dispuesto en la normativa vigente aplicable en la materia y especialmente en la Ordenanza reguladora de las ocupaciones de dominio y uso público de Donostia/San Sebastián, correspondiendo al Concejal Delegado la interpretación que exijan las presentes bases y la citada normativa.

